



## ZIGOR ARLOKO JURISDIKZIOARI BURUZKO ONLINE IKASTARORAKO DEIALDIA

-

Justizia Administrazio Zuzendaritzak Zigor arloko Jurisdikzioari buruzko ikastaroa eskaintzen du, on-line modalitatean, lan-poltsetan daudenentzat bereziki zuzenduta.

Baldintzak:

1. Ikastaroan **lehentasuna izango dute** Justiziako Administrazio Kudeaketa, Izapideketa Judizialeko kidegoetako lan-poltsan daudenek; zehazki, justizia administrazioan zigor arloan, azken bi urteetan 6 hilabeteko lan esperientziarik ez dutenek.

2. Automatrikula, hurrengo estekaren bitartez egingo da:

- [Zigor arloko Jurisdikzioa online izen ematea](#)

*modu honen bidez aurkeztutako eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.*

3. Automatrikulatzeko epea argitaratzen denetik, urriaren 02ko goizeko 8:00ak arte izango da.

4. Urriaren 14an, posta elektronikoko bat bidaliko zaie ikastarorako onartu direnei. Erabiltzailea, pasahitza eta ikastaroan nola sartu adieraziko zaie posta horretan.

5. 300 plaza eskaintzen dira. Hautatzeko, bitartekoen lan-poltsako hurrenkerak izango du lehentasuna.

6. Ikastaroa urriaren 14an hasiko da, 14:00etan, eta urriaren 29an amaituko da, 08:00etan. Epe horretan ikasleak online sar daitezke ikastarora.

7. Ikastaroa moduluz osatuta dago. Modulu bakoitza amaitzeko, autoebaluazio-test bat egin behar da. Test horri esker, ikasleak zenbat aurreratu duen jakingo du, eta moduluak behar beste errepikatze aukera izango du, modulua behar den moduan ulertu eta ikasi arte.

8. Azterketa egiteko eskubidea izateko, ikasleak **ikastaroko test guztiak egin beharko ditu.**

9. Ikastaroa amaituta, **urriaren 31tik (14:00etan) azaroaren 6ra (goizeko 8:00etan) bitartean**, ikastaroaren **azterketa (online)** egiteko epea irekiko da. Ikastaroa gaindituta, ordezkapenak egiteko deitu ahal izango zaie lan-poltsetan daudenei.